

20. zenbakia
2001eko ekaina

URRIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

U

Larrialdiak

Horrelakoetan
euren zerbitzua eskaintzen
duten erakundeak ezagutu
nahi izan ditugu:
DYA, Gurutze Gorria, Babes
Zibila, Suhiltzaileak eta
Sorosleak

• oihane enbeita • jai batzordeak • elorriaga

[irudia]



Elkarrekin Eskuak eskuekin, pertsonak elkarturik, denak norabide berean abiatzeko prest... Aurrera elkarrekin, bata bestearekin, alkarregaz... Denak bat.

Argazkia: Mikel Martinez


UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzaria E.B.E.
 HELBIDEA: Anesti 6, 4. solaina, 5. bloke 48990 GETXO
 e-mail: aldizkari@euskaltz.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37
 ZUZENDARITZA: Jokin Aspuru eta Mikel Martinez
 ERREDAKZIOA: Maitane Burusco, Itziar Benedit, Javi Gonzalez del Herrero
 ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
 TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Burron
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
 MARRAZKARIA: Goñi Vázquez
 KOLABORATZAILERAK: Bitor Egurrola, Jokin de Pedro, Itxaso Arana, Gañika Escudero, Usai Elooriaga, Algotako Bertsolari Eskola,
 Akaitze Kaminaga, Itziar de Cos, Kristina Sangroniz, Iñane Kortokogei
 ADMINISTRATZIOA: Konrado Magerza
 PUBUZITATEA: Jon Gabalondo (94 491 13 37)
 FILMAZIOA: ARGIA / ENPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799

Osorik edo zait, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, ez da gaituzten dago.

© BOLUNTZARRETA

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskarazko TOPAGUNEko parte da



ALDIZKARIA
 jaso nahi duenak
 deitu baino (94
 491 13 37) ez du
 egin behar.

Pozik onartzen
 ditugu zuen dirulaguntzak:

BBK 2095 0022 00 91 02483676



[EKAINA]

Ekainak udaren atarian jartzen gaitu. Horrela ematen du aditzera hilaren izenak berak: eki gaina, eguzki gaina, ekaina. Horrenbestez, eguzkiaren hila dugu ekaina, argiarena, bere hondarrean urteko egunik luzeena, argidunena emango diguna: San Juan.

Gazteentzat esanguratsua izaten da San Juan eguna —areago San Juan bezpera—, udako jai egitasmo luzearen hasiera-edo markatzen duelako: “San Juanetan festak, alaitzeko mutil eta neskek”. Hala ere, ikasle sasoiari dagoenari luze egiten zaio ekainaren hogeita laura artekoa, nahiz eta, gauza guztiak legez, arin joaten den: “San Juan, nekez etorri eta arin joan”, “Gaur da San Juan, bihar jua zan”

San Juan, Donibane, udako solstizioa, sua eta ura, eki gaina, ekaina: santu izenez mozarrotu ziguten jatorri jentileko gau magikoa: suaren inguruan ospatzen den jai primitiboak, eguzkiari eskainitako orgia txepeldua. “San Juanetan, eguzkiak dantzan”.

Ekainari, eitez eta sasoiak, eguzkitsua izatea dagokio, uda ona ekarriko badu, behintzat: “Ekaina eder, uda halaber”.

JOKIN DE PEDRO

SAN JUAN GAUA ALGORTAN. Herriko hainbat elkarte bat eginik (Agurra, Aek, Bizarra Lepoan, Agirre Euskaltegia, ALBE, Gorrondatxe, Itxartu, Gestorak) San Juan Gauda ospatuko dugu ekainaren 23an. Leku desberdinetatik abiatuko diren kalejirak Geltoki plazan elkartu ondoren San Nikolas plazara joango gara. Han umeentzako jokoak, bertsolariak, musika... Sua, eta ondoren txokolate jana!

San Jorge eta Herensugea



Josu Ateka

Getxoko udaleko ingurugiro teknikaria

“Herri honek badauka ezagutu eta zaindu beharreko berezko natura”

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez

Kimikan lizentziatu ondoren ingurugiro ikasketak egin zituen. Duela bost urte hasi zen Getxoko udalean ingurugiro teknikari moduan. Bere sailaren ardurak dira besteak beste herriko berezko naturaren zainketa, kaleetako garbiketa, zarama bilketa...

Azalduguzu zeintzuk diren zuen sailaren helburuak?


Hiru helburu argi ditugu. Lehenkoa herritarrei, zein bisitatzeko gaituztenei, herrian bertan daukagun berezko natura ezagutzera ematea. Badaukagu hor hezegune edo padura eder bat, Bolue. Eta bestetik, badaukagu kostalde oso aberatsa: Galea, Gorrondatxe hondartza... Horiek dira babesik gehien behar duten inguruak. Jendeak dio hau ez dela Doñana, eta egia da, baina daukaguna zaindu behar dugu eta horregatik da hain garrantzitsua jendeak aberastasun hori ezagutzea, kezkatu daitezela eta defenda dezate-la. Gure bigarren helburua jendearen kontzientziatzea da: birziklatzearen aldekoa, garapen eramangarriaren aldekoa... Eta hirugarrena, Getxoko naturaguneak berreskuratzea da.

Zeintzuk dira herrian ingurugiroari begira ditugun arazorik larrienak?

Sarritan beste teknikari batzuekin egoten naiz, adibide bat jartzeagatik, Sestaoko-arekin eta honek guk ingurugiro arazorik ez daukagula esaten dit. Han langabezia igual %60ko da, lindanez kutsatuko lurra dituzte... Eta gero gu txakurren gorotzen aurkako kanpainak egiten gabiltzala aurpegiatzen dit. Nolabait egia da hain arazo larriak ez ditugula, baina arazoak egon badaude. Getxon presio demografikoa handia da eta naturaguneak gutxi, eta guztiok leku horietara bagoaz, ba, hori naturaren kontra doa. Noiz edo noiz mugaren bat jarriko beharko da, ezta?

Birziklatzea modan omen dago...

Behar-beharrezkoa da, bestela ez dugu azkeanean zarama non bota izango. Getxon maila ekonomikokia altua da, horrek esan nahi du gehiago kontsumitzen dela eta, hortaz, zabor gehiago sortzen dugula. Hala ere, gure



birziklatze indizea txapela kentzeko modukoa da eta altuenen artean dago, paperari dagokionez, urtean 30 kiloko indizea lortu da. Gero eta gehiago zabaltzen ari gara birziklatzeko gaiak. Fluoreszenteak, pilak, plastikoa, papera, beira, eta orain arrokekin hasi gara; hala ere, birziklatzea esparru gehiagotara zabaldu nahi dugu. Baina gauza bat esan nahi dut. Har dezagun paperaren adibidea. Birziklatzearen helburua, prozesu kutsagarriak eta zuhaitz mozketak ezabatzea da, baina hau ez da gertatuko paper birziklatua erabiltzen ez bada. Horregatik orain paper birziklatuaren erabilpena sustatu nahi dugu. Udaletxean bertan egiten hasi nahi dugu; jakina herritarrei ezin zaie eskatu, norberak egiten ez duena.

Udaren atarian gaude. Zer moduz uren kaltatea?

Gero eta hobe. Kolektoreak abian jarri ziren baina emaitzak ez dira egun batetik bestera ikusten. Apurka-apurka igarriko da

hobekuntza. Bestalde Areetako hondartza kenduta beste guztietan har daiteke bainua, hori bai, ondoren dutxa hartzea komenigarria da. Arrigunaga hiri hondartza bezala oso ondo geratu dela uste dut, baina nik Gorrondatxe, Azkorriko hondartza nabarmenduko nuke, txapela kentzeko modukoa da. Hori bai arazoak ditugu motorrak jaisten direlako eta gero, golf jokalariekin. Azkorriko duna sistema babestu behar dugu.

Egitasmo aipagarririk bai?

Bai. Oso ondo funtzionatzen duen kultur etxe bat dagoen moduan, natur etxe bat beharrezkoa ikusten dugu. 80.000 lagun bizi gara hemen eta beharrezkoa da. Larrañazubin egin nahi dugu eta gauza handia izatea da gure asmoa: bertako espezieen parkea izango du, basoa inguruan, ibilbide naturalak... Ikastetxeek, publikoak oro har, bisitatzeko leku aproposa egin nahi dugu. Dirua Europar eskatu dugu, eta orain erantzunaren zain gaude. m

[UKronikak]

Arrigunaga-Galway

Testua: Unai Elorriaga

“Olatuak dira gauza bat beti diferentea,

Behin eta berriro esaten nion amari, ezta, hamar mila pezeta baino ez direla, hamar mila baina ez zitzaizkidala falta, ezta, baina kasurik ere ez. Porrejenplo liburu bat erosteko eskatuko banio, edo tulipa-sorta bat erosteko (horra hor horterakeria) emango lizkidake hamar mila pezetak ondo gustura, ez dakielako, seguramente, ze arriskutsua den liburu bat, edo zelako malaletxea hasten zaien aitagarrebei alabaren eskuetan lore-sorta bat ikusten dutenetan, horrek esan nahi duelako bart.

Baina, klaro, surf-tabla bat erosteko ez dizkit amak hamar mila pezeta emango. Beste guztia badaukat; aurreztu egin dut. Eskolak eman ditut neguan, matematikakoak, eta aguantatu dut ume bat, leloa alderdi guztietatik, eta zeharo sustantziakoa ekuazio inpresentable bat behar bezala egiteko. Eta aguantatu behar izan dut neskato bat ere bai, mamala alderdi guztietatik, eta kolegioko uniforme janzteko moduko entendimientua daukana, ozta-ozta. Eta klaseak eman ditut borondate aipagarritz eta ilusio akonjontez, eta aurreztu ditut diruak baina hamar mila pezeta falta zaizkit orain tabla erosteko eta ez dizkit amak utzi nahi.


Bi mila pezeta irabazten ditut astero eta hilabete eta piku beharko nuke tabla erosteko eta ezinezkoa da hori, porke koadrilako guztiek daukate ya eta kuriosoena da inork ez duela, nire moduan, lanik egiten, gurasoek emanda erosi dute, gurasoek emanda: integro. Bestela patinean ibiltzen gara, eta patina ondo dago, Arrigunagan ibiltzen gara eta orain Berangon ere egin dute, baina aspertu egiten gara apur bat, atzetik aurrera, eskumatik ezkerrera, bueltak, joan eta etorri, beti gauza bera. Hondartzan beste kontu bat da: olatuak dira gauza bat beti diferentea, eta itsasoa da gauza bat inpredeziblea.

Eta patina ondo dago baina hamabost urte ditut ya eta koadrilako guztiek daukate tabla bana, eta nik ez, eta ematen du taldeko tontoa naizela.

Orain lagunekin joaten naiz hondartzara baina ezin naiz uretara sartu eta pentsatzen hasten naiz tontoa naizela benetan, porke nik denak aprobatu ditut institutuan, inkluso hiru bikain atera ditut eta tabla gainean dabilen zapazto horrek zazpi

penkatu ditu eta hala ere tabla gainean dago, eta berea da tabla, para más cujons.

Gaur goizean erabaki dut, ordea. Patinarekin sartuko naiz uretara. Pentsatu eta egin. Daukadan indar guztiarekin eragin diot patinari eta uretan sartu naiz. Eta olatuak pasatu ditut eta patinari eragiten jarraitu dut eta konturatu naizenerako ez nuen hondartza ikusten. Frantzia osorik pasatu dut eta Irlandara heldu naiz, Galway-ra; baina ez egin niri kasu handirik, matematiketan ona naizelako baina geografian ez. Eta nekatu naizenean etxera itzultzea erabaki dut, eta berandu heldu naiz noski, eta haserretu egin da ama, gainera; baina argi esan diot tabla bat izan banu, goizago helduko nintzela etxera, porke tabla daukatenean hondartzatik hurbil egoteko ohitura daukate. m



[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / MARIA CRISTINA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Goian, egitasmoaren aurkezpen eguneko batzarra. Azpian, Portu Zaharreko irudi bat.

[herria]

Portu zaharra Turismoa bultzatzeko plana

Maiatzaren 24ean Markefin enpresak Algortako Portu Zaharreko turismoa bultzatzeko plan estrategikoa aurkeztu zien bertako auzokideei. Enpresa honetako ordezkariak jakinarazi zuten, haien proiektuak, hemengo ohiturak eta tradizioak mantenduz, turismoa indartzeko helburua duela. Horretarako auzokideekin elkartu ziren bakoitzak zituen ideiak eta kezak eztabaidatzeko. Markefin enpresak Getxoko historia aztertuz herriari atxikia dauden eta bereizgarriak diren elementuak aurkitu ditu. Elementu hauetan oinarrituta jada dagoena sendotu eta bultzatu nahi da. Proposamen guztien ardatza joko bat da. Joko honek herria ikuspuntu ludiko batekin ezagutzeko aukera ematen du. Arrantzale tabernaren aurrean sareak josteko orratza erliebeduna jartzeko ideia daukate, baita antzina San Nikolas ermita zena silueta baten bidez errepresentatzea. Pedro Bilbao enparantzan mahai handia jartzeko ideia dute eta bertan tipikoa den errezeta grabatzea. Hauekin eta beste hainbat ideiarekin batera Algortako Portu Zaharra turistentzat erakargarri bihurtu nahi dute, bertako auzokideekin batera lan eginez. ^m

UK



Goian, bazkariko une bat. Azpian, antolaketa arduratzen den taldea.

[gizartea]

Nagusien eguna Aitite eta amamen eguna

Urtero ekaineko lehenengo domekan Getxoko aititek eta amamek ondo merezitako omenaldia hartzen dute. Izan ere, eurak badirelako eta izan direlako, gu ere bagara. Eta esker ona emateko urtero egiten da jaialdia Getxon. Ospakizun hau duela hamabost urte hasi zuten Andra Mari elizaren inguruan zebiltzan lagunek eta denbora pasatu ahala, gero eta arrakastatsua izan da; aurten ia berrehun lagun elkartu dira ekainaren 3an Andra Mari Ikastexean egunpasa ederra egiteko. Jaialdiaren egitaraua aurrekoen berdintzua izan da. Goizean Uribe Merinaldeko Txistulari Elkarteak kalejira egin zuen herrian zehar. Meza ondoren, Itxas Argia dantza taldeak erakustaldia egin zuen. Eta handik bazkaltzera joan ziren eguneko protagonistak, hau da, nagusiak. Bazkari oparoa eta gero dantzaldia, orkestra eta guzti.

Zaharrak, jakituria iturri baino, zama moduan ikusten diren garaioetan, esker-garriak dira horrelako ekimenak eta hori baino garrantzitsuagoa, gurean ekimen hauek aurrera ateratzeko bultzatzailerik egotea da. ^m

zure markarik onenak sport wear-ean

ATOR Serigrafia eta transfer

azkartasuna kalitatea prezioa

kamisetak onenak preziorik onenean!

zure kamiseta, publizitate artikulua eta fotokopia denda

Super prezioak!!! KOADRILAK-JAIAK!!!

Kamisetak, Sudaderak, Poloak, Prakak, Euritakoak....

Koadrilak: kamisetak bertan eginez gero, **Bi Pertsonentzako Asteburuko Bidaia** zozketatuko dugu, eta koadrilako gainontzeko kideentzat, **ATOR-MARRASKILO kamiseta bana**

ATOR

- Fotokopiak zurbeltzean
- Plastifikazioak
- Fotokopiak koloretan
- Inprentak, txartelak
- Enkoadernazioak, faszikulak
- Papeleria
- Anplazio zein erredukzioak
- Gomazko zigiluak

ALGORTA
Algortako etorb. 106
Tf.: 94 460 10 31 / Fax: 94 460 86 62

BILBO (lantegia eta biltegia)
Moncada 9, 3.
Tf.: 94 410 37 07 / Fax: 94 410 34 46
e-mail: atorfym@euskalnet.net

LEIOA
Sabino Arana etorb. 86
Tf.: 94 480 04 46 / Fax: 94 480 04 46

SG THE SECRET GARDEN SG

Kiromasajista: Ana M. Blanco Imatz / Esteticien: Susana Gragera

SOLARIUM
36 HODI EKOLOGIKO + AURPEGIRAKO 3 HIGIENE OSOA

MASAJEAK
TRATAMENDUAK
TERAPEUTIKOAK-LASAIGARRIAK / ANTIZELULITUKOAK-ERREFIRMANTEAK
ERREFLEXOLOGIA / DRENAJE LINFATIKOAK

Natura Bissé
DIAMOND azalerako bitxia

-DEPILAZIO ZERA. Gorputz tenperatura
-DEPILAZIO ELEKTRIKOAK. Elektrologo diplomatua
-DEPILAZIO LASER
-AURPEGIRAKO TRATAMENDUA
-KUTISAREN GARBIKETAK
-MIKROPIGMENTAZIOA ETA TATUAIA

-BEKAINENTZAKO TINTE ETA PERMANENTEA
-MAKILAJEA (ETXEAN) **eskatu ordua!**
-KOLOREZKO KOSMETIKA **120 m²-zure zerbitzura!**
-GIMNASIA PASIBOA
-KONPLEMENTOAK

eta orain... *fisioterapeuta diplomatua... traumatologia, kirol fisioterapia, errematologikoa...*

abuztuan zabalik!

Algortako etorbidea 106 • 94 460 62 01 • 48990 ALGORTA


ENEKO

BAR

ALGORTA

 dj.ak
 antzerkia
 erakusketak

Errotalde
 ileapaindegia
 HARTU TXANDA TELEFONOZ!!
 T: 460 38 90
 Errotalde 18A
 ANDRA MARI GETXO

foto
xabier
 argazkiak

 Doctor Landa z/g
 Tfno. 94 676 03 09
SOPELA

aldai
 TAPIZTEGIA
 DEKORAZIOA
 ERAKUSKETA
 ETA TAIERRAK
 Basagoiti etorbidea 32
 Tf: 460 90 31
 48990 ALGORTA

[kirola]

Xistera txapeldunak

Getxoko euskal pilotako taldeko harrobia

Duela hamazortzi urte hasi zen Getxoko euskal pilota taldeak herriko gazteak modalitate desberdinetan trebatzen: eskuz, paleta eta xistera. Urte luzeetako lanak fruituak ematen hasi da orain. Izan ere, duela gutxi Bizkaiko Xistera Txapelketa irabazi dute taldeko lagun bik kadeteen mailan: Arkaitz Elgezabal eta Endika Vazquez Dobaran. Lehiaketa horretan tradizio handiko herriek hartzen dute parte, esaterako Berriatua, Gernika, edo pilotaren unibertsitatea deitzen duten Markina.

Getxoko euskal pilota taldean, sei urte-tik gorako 130 lagun inguru dabilta gaur egun pilotan ikasten: eskuz 58, herramien-

tan 47 eta xisteran 27. Hau guztia Jokin Alonso taldeko arduradunak kontatu digu, buru-belarri pilota zaletasuna zabaltzeko beharrean diharduen gizonak. Taldeko ateak zabalik daude eta entrenatzera animatzen denak giro ona, edozein modalitate gozatzeko aukera eta, hala nahi izanez gero, urte osoan lehiatzeko aukera aurkituko ditu. Eta zera azpimarratu digu Jokin: behin ikasiz gero, bizitza osoan jokatu daitekeen kirola dela pilota. Entrenamenduak Getxoko frontoian eta Faduran izaten dira. Ikasi nahi duenak orain badaki nora jo. m

Harremanetarako:
 637 406 603 Jokin Alonso
 94 491 04 09 frontoia

Arkaitz Elgezabal eta Endika Vazquez Dobaran, Bizkaiko zesta txapeldunak



Mikel Martinez

BISITATU GURE DENDA BERRIA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4
 ALGORTAKO AZOKA
 48990 ALGORTA
 TF. 94 491 18 82

SATISTEGI
CALIFE



ADITUAK GARA
PINTXO ETA
BOKATA
BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA
 % 94 46019 69

Udako ikastaro trinkoak
 Cursos intensivos en julio y septiembre

euskara

Mintzamen ikastaroak ere bai!!
 (2 ordukoak)

Algotako Etorbidea 104 zbk
 48990 Algorta - GETXO
 Tf: 94 460 66 71

HABEK dirna diruz lagundua



BILBO MICRO

“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

KURKUDI LIBURUDENDA

Testu liburuak enkarguz

Euskarazko irakurgai guztiak!!
 Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
 T: 94 913 402



Gau magikoa Lamién herrian

Maiatzaren 25ean eta ohiturari eutsiz, Lamiakoko –hau da, lamién herriko– Maskarada taldeak euskal mitologiako hainbat pertsonaia berpiztu zituen. Mari, Galtzagorriak, Basajaun, Lamiak... bisitan izan genituen. Urteak joan ahala, gero eta harrera hobea dauka jaialdi honek. Aurten ehundaka lagun elkartu dira eta gau magiko haren lekuko izan zen gure argazkilaria.

Argazkiak: Mikel Martínez





Bestelako gaiak:

Drogak
Politika
Bidaia
Osasuna
Sexualitatea
Munduko
literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79

Algorta



basurto

algorta S.L.

altzariak


telletxe 15, algorta

T: 460 71 62 - 460 42 44

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

VILLABOTAS
IATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[euskara]

Ibilaldia Getxon

2002koa antolatzen hasi da San Nikolas Ikastola



San Nikolas Ikastola

Antton Azkargorta ikastolako lehendakaria Ibilaldiaren lekukoa hartzen

Ospatu berri den Ibilaldiaren arrakasta ikusi ondoren, Uribe Kostako euskaltzaleek irrikitan espero dugu hurrengo Bizkaiko ikastoleen festa, aurten esarritako errekor berria (maiatzak 27an Abusun antolatutako Ibilaldian 125.000 pertsona elkartu ziren termometroak 35 gradutara heldu arren) gainditu ahal izateko. Ez da ez erraza izango, baina gogorik behintzat ez da falta.

San Nikolas ikastolak Ibilaldia antolatu ahal izateko egin duen hirugarren eskaera izan da aurtengoa..., hirugarrena eta onartutakoa azkenean! Orain haiei dagokie, beraz, 2002ko maiatzaren azkenengo asteburuan ospatuko den Ibilaldia antolatzea.

Abusun lekukoa hartu zuen San Nikolas ikastolako lehendakariak eta urte gogorra izango da guraso eta irakasleei

datorkiena (ekainean lehenengo prentsaurrekoa eskaini dute); gogorra eta polita aldi berean. Eta daukaten gogoa, Ibilaldiak berak sortzen duen ilusioa, haien laguntzailerik garrantzitsuena izango da zalantzarik gabe. Hala eta guztiz ere, antolatzaileek dioten bezala, Ibilaldia ez da soilik ikastolen inguruan dagoen jendearentzat; nahi duenak parte har dezake jaia eta ekintza kultural ezberdinen inguruan egin beharreko prestaketa lanetan. Guztion laguntza beharrezkoa izango da eta San Nikolas ikastolako arduradunek zalantzarik gabe eskertuko dute. Gehiago jakin nahi duenak edo eta lagundu nahi duenak 94 430 54 78 telefonora deitu dezake edo snikolas@ikastola.net posta elektronikoko helbidera idatzi. UK aldizkarian ere hilabetero jakinaren gainean mantenduko zaituztegu. m

[literatura]

Unai Elorriaga

“SPrako tranbia” bere lehenengo nobela kalean

Lanbidez itzultzaile, 28 urte, algortarra, literaturaren arrak jota bizi da Unai. Aldizkari honetako UKronikagilea ere bada eta baditu han eta hemen hainbat ipuin barreiatuak.

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez

Lehenengo liburua, zer sentitzen da? Hasieran ilusio handia, baina gero, atzeratzen eta atzeratzen joan denez, ba, nerbioak. Apirilean ateratzekoa zen, gero maiatzaren hasieran, gero erdialdean... eta azkenean orain atera da. Gero eta nerbio gehiago sentitzen ditut eta orain plazaratu denean, ia ezin dut sinestu. Ez dakit zelan hartuko duen kritikak, ez dakit zelan hartuko duten irakurleek... Baina hain gauza luzea izan denez, gehiago pentsatzen ari naiz hurrengo liburuan honetan baino. Orain hurrengo idazteko beka baterako proiektua prestatzen nabil, bestea utzi dut.

Zein idazle dira zure erreferente?

Ez zait izenik aipatzea gustatzen, gero txarto geratzen da bat eta gainera lagunek txantxak egiten dizkirate (barrezka). Nik denetatik hartzen dut, baina gero beti nire burutik pasatzen dut. Esatarako, “SPrako tranbia”n Algortako gauzak ikusten dira, baina ez era aruntean ikusten diren moduan, distortsionatuak ikusten dira. Eta hori gustatzen zait, gauzak distortsionatzea. Nahiz eta erreferenteak eduki erreferente horiek distorsionatu egiten ditut, eta hortik gauza bitxi bat ateratzen da.

Lehenengo galdera beste modu batera, nondik edaten du Unai?

Leku guztietatik. Niri ikaragarri gustatzen zait, 20ko hamarkadan hasi zen kontu hori: Kafka, surrealismoa... Gustatzen zaidana da garai hartan egon zen pentsamendu aldaketa. Gaur ikusten ditugu garai hartako argazkiak eta pentsa daiteke zaharkituak daudela, baina ze ostras! Gu baino askoz modernoagoak ziren. Pentsakera askoz ere aurrekoiagoa zen, pasada bat; Breton, Dalí, banguardiak... Hortxe hasi zen niri gustatzen zaidana. Ni saiatzan naiz planteamendu berbera egiten, baina jendeak gozatzeko moduan. Hori oso zaila da, baina ahalegina behintzat egiten dut.

Guztia eginda omen dago literatura, berritzea oso gaxa da. Sortzaile moduan zelan ikusten da hori?

Ni ere irakurlea naiz, eta batez ere lehenengo liburua irakurtzen ditut. Hala ere, nik uste dute ez dagoela dena eginda, esperimentuak beharbada bai. Esaterako Julio Cortazarrek egin zuena nire burutik pasatzean beste gauza

bat da. Nik egin izan dut hori, Julio Cortazarren liburu baten ideia eta esperimentatzeko modua hartu, nire burutik pasatu eta ipuin bat idatzi. Eta gainera izen bera jarri nion lan hari, “Laztanik sakonena”. Publikatu egin da aldizkari batzuetan, antologia batean eta ni seguru nago argitaratzaileek, literaturaz asko dakitenak, ez zutela Cortazarren ipuina hor ikusi. Horregatik uste dut gauza guztiak ez daudela eginda, pertsona guztiak diferenteak direlako. Julio Cortazarrek ez du Algorta ezagutu ezta nik Argentina.

Zerk bultzatzen zaitu idaztera?

Ez dakit zelan esan. Nik uste dut ilusioak mugitu behar duela jendea. Niri motorrak ez zaizkit batere gustatzen, baina asko gustatu zitzaidan ikusi nuenean behin Alex Crivillek irabazi zuela munduko txapelketa bat, Estatu Batuetan edo Australian irabazi zuen, egia esan, ez dakit. Ba motorzaleak joan ziren Sevillatik edo, eta joan ziren Alex Crivilleren etxera eta han egon ziren bere etxean hiru egun edo, bazekiten ez zetorrela tipoa eta, hala ere, pozik zeuden bere amak txikitako motorra eta bere gela erakutsi zizkielako... Eta Sevillatik Catalunyaraino joan ziren eta horrekin baino ez, pozik zeuden. Hor badago zozoz, ilusio bat. Literatura gauza bera da, batek badauka ilusio bat, kasu honetan literatura, eta horren atzetik doa, artikulua irakurriz, liburuak, idatziz... UK ale honetako kronikan kontatzen dudana moduan, gauza bera gertatzen da adibidez, skater edo surferrekin. Niri hori itzel gustatzen zait. Ikusten ditudanean gazteak edaten beste ezer egin barik, hori egiten baino ez asteburuan, ilusio barik... Ba, ez dakit. Gero ikusten ditut besteak, eta badaukate ilusioa, eta baten bat igual Europako txapelduna izatera ailegatuko da. Literaturarekin gauza bera gertatzen zait niri.

Literaturgile moduan, helburua liburu inprimatua da beti?

Idazten denean, liburu gogoan izaten da. Liburuak prestigioa dauka. Ateratzen baduzu

liburu bat eta gero beste bat, eta irakurtzen bada, kritika onak jasotzen baditu... beste gauza batzuk egiteko aukera du batek. Ez dut esaten hori ondo edo txarto dagoenik. Liburuak prestigio hori dauka. Artikuluek edo bildumetan argitaratzen baduzu, ez da gauza bera.

Gaur egun, euskal literaturan interesgarriena... Niretzat Harkaitz Cano oso ona da eta gauza bikainak egingo ditu. Gero, Atxaga Atxaga da, Saizarbitoria Saizarbitoria eta Lertxundi Lertxundi. Orain uste dut Sarrionandiak nobela berria atera behar duela, ea! Hortxe dabil Jon Alonso, eta Julen Gabiria, bere lehenengo nobelan oso gauza politak ikusi dizkiot.

Jakinmina daukat, zeintzuk liburu daukazu mesanotxean?

Ba orain, Manuel Rivasen La mano del emigrante irakurri berri dut, Margarite Durasen Moderato cantavile eta Torrente Ballesterren Filomeno a mi pesar.

Zenbat denbora eman duzu nobela idazten?


Nik oso betidanik idatzi izan dut, baina oso astiro. Urte eta erdi behar izan dut 150 orrialdeko liburua osatzeko, atera kontuak. Lagun bati esaten nion koma batek ordu erdi daukala eta hori egia da. Urte eta erdi izan da, baina egunero idazten. Nahiz eta nekatuta egon, egunero zortzietatik hamarretara, liburuan murgilduta. Batzuetan, beharbada, ez nuen ezer idazten, hantxe nengoen buruari bueltak ematen eta ez nuen esaldi bat ere idazten. Buelta asko, gehiegi igual.

Amaitzeko, esaidazu arroiren bat SPrako tranbia irakurtzeko.

Irakurri dutenek, liburu atsegina dela esan dute. Badago literatura, irakurtzeko goxoa da, “rato” on bat pasatzeko aproposa, eta gehiago nahi duenak beste ezer topatu dezake. Irakurtzeko erraza da, badago humorea eta negar egiteko kontuak ere bai... m

“Gauza guztiak ez daude eginda pertsona guztiak diferenteak direlako”





Uda begibistan dugu eta berarekin batera gure herriko jaiak datozkigu. Negu gorrian zehar askotan gogoratu ditugu udako epeltasuna, parrandak eta jaiak, eta orain, ia konturatu barik, gainean ditugu berriro ere. UK jai batzorde batzuetako kideekin egon da; ez da erraza izan, gehienak azkenengo prestakuntzekin lan ez gainezka zebiltzan-eta.

Jaibatzoordeak

Testua: Javi G. del Herrero / Argazkiak: Mikel Martinez



Portu Zaharreko jaiak Abuztuak 10

Nork antolatzen ditu?

Urtero bezala, betiko jai batzordeak antolatzen ditu. Jai batzordea talde ezberdinek osatzen dute; Getxo Rugby taldeak, Haikak, Gestoras-ek, koadrilak eta Portu Zaharreko auzokideek. Otsailetik, astelehenero elkartzen dira arratsaldeko 8:00etan Itsasganeko Aldai Patronatoan.

Aurrekontua: barregarria; milioi bakarra! Diru horrekin jaialdi guztiak antolatu behar dituzte; beraz, estu eta larri dabilta. Ez da kontzertu ezta gau jairik egongo eta, urtero legez, txosnek jarri behar izango diete giroa jaiari.

Zer egongo da? Koadrilen jaitsiera, antzarrik gabeko antzarren altzaldiak, sokamuturra, rallya eta diskoteka (ez dago-eta beste ezertarako dirurik).



San Agustinak Erandion Abuztuak 28

Nork antolatzen ditu?

Bost urte antolatzen darama jai batzorde berberak. Herriko jendea da batzordea osatzen duena eta elkar ondo ezagutzen dutenez, berandu hasi dira aurtengo prestakuntzarekin; apirilaren 18tik ostegunero elkartzen dira arratsaldeko 7:30etan Udaletxean.

Aurrekontua: 11 milioi.

Zer egongo da?

Jantzi merkeen txapelketa eta goitibeheren jaitsiera dira gauzarik ohizkoenak Erandioko jaietan. Horrez gain, aurtengo boxeo gaua, kukaña, su artifizialak, kontzertuak eta Erandioko bandera (estropadak) egongo dira.

Santo Domingo Berangon Abuztuak 8

Nork antolatzen ditu?

Berangon aurtengo, iaz bezala, jai batzordea arduratuko da jaiak antolatzeaz. Urtarrilean hasi ziren gauzak prestatzen asteen behin (astelehenero 7:00etan kultur etxean) elkartuz. Hogei taldek osatzen dute aurtengo jai batzordea; haien artean atletismo eta txirindularitza taldeak, hainbat talde kultural, Kultur Etxea eta abar.

Aurrekontua: Aurtengo jaien aurrekontua 6 milioikoa da. 5'5 udalak jarri ditu eta barraketakoek bestea.

Zer egongo da?

Ohizko jaialdia eta, berrikuntza bezala, Trial txapelketa.

San Pedroak Sopelanan Ekainak 29

Nork antolatzen ditu?

Talde ezberdinek (Mozkortiak, ZURT, Gestorak, Katzerrote) osatzen duten jai batzordeak antolatzen ditu jaiak. Bi hilabete daramate lanean buru-belarri gauzak ondo atera daitezzen.

Aurrekontua: 8 milioi.

Zer egongo da?

Kontzertuak (Kaos etiliko, Idi biotz...), pilota partiduak eta Astondoaren su artifizialak dira ekitaldirik aipagarrienak.





Erromoko jaiak
Abuztuak 2

Nork antolatzen ditu?

Jon Iñakirekin berba egin genuen jaiari buruzko informazioa lortzeko. Bera izan da jai batzordearen arduraduna azkenengo 13 urte hauetan eta, beraz, berarengana jo genuen. "Jai batzordeak antolatzen ditu jaiak. Nahi duenak parte har dezake bileretan eta guztien languntza eskertzekoa da. Urritik, jai batzordea asteartero elkartzen da arratsaldeko zazpi t'erdietan Santa Eugeniako eskoletan", azaldu zigun Jon Iñakik.

Aurrekontua: Jai Batzordeak bost milioi eta erdi eskatu zituen arren, udalak 1.300 000 pta. eman zien.

Zer egongo da?

Orain dela hiru urte egin zen bezala, aurten ere car lasterketa egongo da. Reagge Jaialdia eta Reincidentes-en kontzertua izango dira aurtengo ekitaldi nagusiak.



Urdulizko jaiak
Irailak 8

Nork antolatzen ditu?

Udalak jai batzordearekin batera. Jai batzordean nahi duten talde guztiek har dezakete parte. Maiatzaren 22an 7:00etan egin zuten lehenengo bilera (berandu xamar dabilta aurten) udaletxe azpian dauden lokaletan.

Aurrekontua:

Aurtengoa 4-5 milioikoa izango da.

Zer egongo da?

Oraindik zehaztu gabe dagoen arren, aurten pilota partidu profesionalak egongo direla ziurtatu digute. Ekintza garrantzitsuena izango da baina ez bakarria; umeentzako, adibidez, aire-gazteluak egongo dira; koadrilentzako jokoak, eta abar. Eta ez da faltako kontzerturik, iaz hain arrakastatsuak izan ziren su artifizialak eta dagoeneko ospetsu egin den pintura lehiaketa.

Santiago eguna Gorlizen
Uztailak 25

Nork antolatzen ditu?

Urtero bezala, jai batzorde plural batek antolatzen ditu jaiak. Otsailtik kultur eta kirol talde ezberdinak elkartzen dira Gorlizko kultur etxean eta haiekin batera, tabernariak, koadrilak, kaleko jendea eta abar.

Aurrekontua: Aurrekontu polita daukate jai batzordekoek jaiak prestatzeko; 15 milioi, alajaina!

Zer egongo da?

Nazioarteko dantza jaialdia, habanarak, artisauen merkatua, herriko rock talde batzuek eskainitako jaialdia eta Hemendik At-en kontzertua...

San Juanak Leioan
Ekainak 24

Nork antolatzen ditu?


Leioako udalak herriko koadrilekin batera. Otsailean hasi ziren gauzak prestatzen. Hasieran hilean behin elkartzen ziren, baina azkenengo bolada honetan astean behin egiten dituzte bilerak, astelehenero.

Aurrekontua:

12 milioi eta erdi.

Zer egongo da?

Rock musika lekua edukiko du aurtengo programan Ariel Roth eta E.H. Sukarra taldeen kontzertuekin. Su artifizialak ere egongo dira.



• ekainaren 16an zabaltze ekitaldi ofiziala •

ALGORTAKO AZOKA

zure betiko dendak



CHELO ATERKI DENDA



ALKAR LOREDENDA



CUESTA FRUTADENDA



MARDARAS HARATEGIA



ISABEL ARRAINDEGIA



MOLANO ARRAINDEGIA



ANSOLEAGA HARATEGIA



"MANOLO EL PATATERO"



BEGOÑA DEGUSTAZIOA



KANTXA "MOROTXO" KIROL MODA



MARI GLORI OIATEGIA



FISHMAN TABERNA



CEAL SUPERMERCATUA



AVIEGA, ENMARKAZIOAK ETA MARGOLANAK



JOSE MARI TXARKUTERIA



TXIKILIN HARATEGIA



ISABEL FRUTADENDA



MADARIAGA HARATEGIA

behar dozun guztia herritik urten barik!!!



[fotografia]



EZKERRETIK ESKUINERA

- Eusko Legebiltzarra, 1980
- Casa del Loco kluba, Bilbo 1978
- Iribarri omenaldia San Mames-en
- Zezen suzkoa Alangoko jaietan, 1974
- Portu Zaharreko jaiak, 1974
- Martin Zabaleta Everest igo berria



KepaUrkiza historia handiko irudiak

Oso gazte hasi zen Kepa Urkiza (Algorta, 1953) argazkilaritzaren munduan. Irudi Taldeko sortzaileetako bat izan zen. 1977tik 1981era Egin egunkarian egin zuen behar argazkilaria moduan. Ondoren, Bilboko Nazioarteko Erakusketa azokako argazkilaria izan zen, aldi berean, Algorta Taller de Imagen eskolan klaseak eman zituen. 1989an fotografia komertziala egiten hasi zen. Gaur egun argazki-denda bat dauka Areetan, eta estudio fotografia eta publizitatea jorratzen ditu. m

Supermerkatu handien eta piratakeriaren eraginez, azkenengo urteotan disko-dendak desagertzen hasi dira gure eskualdean. Gaur egun lau baino ez dira geratzen Uribe Kosta osoan (bi Algortan, Fusa eta Izarra; Brixton, Erromon eta Vellido, Areetan) eta gorriak pasatzen ari dira bizirauteko. Piratakeriak bezero ugari kentzen dizkie, guztiz ezinezkoa da supermerkatu handien eskaintzak berdintzea. Disko saltzaileen etorkizuna ez dago batere argi eta ea zer egin daitekeen oraindik aurrera da euren buruei sarritan egiten dieten erantzunik gabeko galdera.


Testua: Javi G. del Herrero / Argazkiak: Mikel Martinez



Vellido klasiko bat

Denda: Uribe Kosta osoan dagoen diskodendarik handiena, eta zalantzarik gabe, ospetsuena da Vellido. CD berriak saltzen dituzte, noski, baina baita zaharrak ere; bigarren eskuko 5.000 disko baino gehiago daukate salgai. Dendaren bestealdean, bideoak alokatzeko aukera dago. **Historia:** Jabi eta Maika neba-arrebak eta dendako langileak azaldu ziguten bezala, 30 urte baino gehiago pasatu dira Vellidoak atea ireki zituenetik. Binilozko diskoak orain dela asko desagertu ziren dendako apalategietatik eta zintak geroz eta gutxiago saltzen dituzte. **Gehien saltzen dena:** euskaraz, Benito Lertxundi (bere diskografia osoa dute) eta Su ta gar; erdaraz Manolo García. Musika klasiko asko saltzen dute, eta supermerkatu handietan aurkitzea ezinezkoa dena ere bai. **Bitxikeria:** atzeritar asko (ingelesak gehien bat) datozkie euskal musika erostera. **Etsairik handiena:** piratakeria inolako zalantzarik gabe. **Esaldia:** “Hasiera batean guk ez genuen CD birjinik saltzeko asmorik piratakeria dela eta, baina orain saltzen ditugu; disko arrakastatsuenek beste diru ematen dute”. m

Vellido: Las Mercedes 20, Areea/ Tel: 94 463 37 28



Fusa egoerari eusten

Denda: morea kanpotik, barrutik Fusa ez da lar handia baina bereziki ondo argizatua dago. Apalategietan CDak dira nagusi, nahiz eta han hemen kamiseta batzuk salgai ikusten diren. Dendako salmahaiaren atzetik, jabea, Patxok, begikotasunez erantzun zien gure galderei. **Historia:** orain dela hamabi urte baino gehiago ireki zuen denda Patxo Lizasok. Lehen kale berean zegoen, baina apur bat gorago; musikazaleek ederto gogoratuko dute, askoz ere txikiagoa zen. Duela sei urte egoitza berrian daude: Algortako Etorbidearen 53. zenbakian. **Gehien saltzen dena:** euskaraz, Su ta gar eta Etsaiak; erdaraz gauza zehatzak, batez ere musika espezializatua. **Bitxikeria:** Patxoren esanetan, gero eta gutxiago saltzen da; “Bezero asko desagertu dira. Musika alde batera utzi eta informatikaren munduan sartu dira gure zoritxarrerako”. **Etsairik handiena:** Supermerkatu handiak, piratakeria,... **Esaldia:** “Banatzaileek prezioak igotzen jarraitzen dute, baina gu geu limitean gabilta eta ezin ditugu gehiago igo, ondorioz etekinak gero eta txikiagoak dira”. m

Fusa: Algortako etorbidea 53, Algorta. Tel: 94 460 90 40



Brixton binilioak salgai

Denda: txikia eta konprimitua, gehien harrizten gaituena Brixtonen sartzean, zalantzarik gabe binilozko diskoak dira; ehundaka daukate kutxatan sartuak mahai azpian. Denda gehienetan aspaldi desagertu baziren ere, Brixtonen edizio berriak ere topa daitezke. Gainera, Inglaterratik ekarritako arropa, botak eta, jakina, CDak salgai aurkituko ditu bezeroak. **Historia:** Brixton Londoneko hegoaldeko auzo jamaikar baten izena da, baita Natxo eta Xabik Erromon ireki zuten dendarena ere. Brixton musika-denda Santurtzin ireki zuten hasiera batean, baina orain dela sei urte Erromora aldatu ziren eta bertan jarraitzen dute supermerkatu handiei aurre egiten euren eskaintza berezia baliatuz. **Gehien saltzen dena:** euskaraz, Skalariak eta gaztelaniaz, Dropkick Murphys. **Bitxikeria:** Uribe Kosta osoan binilozko diskoak saltzen dituen denda bakarra da Brixton. **Etsairik handiena:** “Estatuak jartzen dizkigun zergak eta oinegitura falta; kaleak ez daude batere ondo, ez da batere erraza hemen autoa aparkatzea eta horrek erosle piloak galduarazten digu”. **Esaldia:** “Ezinezkoa da Artea eta horrelako supermerkatukin lehiatzea, baina guri ez digute kalterik egiten guk beste musika mota bat saltzen dugulako”, azaldu zigun Xabik; “Hemen daukaguna ezin duzu Artean aurkitu. Jamaikako musika, punk musika, independentea eta musika beltza dira gure espezialitateak”. m

Brixton: Kresaltxu 4, Erromo / Tel: 94 464 81 04 / www.brixton.net



Izarra zinea eta musika

Denda: Luzea, ondo argizatua eta apaindua; horrelakoa da Izarra disko-denda. Hormak karteletz josiak daude eta apalategietan mota guztietako CDak aurkitu daitezke, baina ez dago ez binilozko diskorik ezta zintarik ere. Badago, ordea, bideoak alokatzeko aukera. **Historia:** orain dela urte eta erdi ireki zuen denda Aitor Araluzek. Izugarri gustatzen zaizkio zinea eta musika eta birritan pentsatu gabe negozioa irekitzen ausartu zen, nahiz eta gaur egun disko-dendak desagertzen ari direla jakin. **Gehien saltzen dena:** euskaraz, Su ta gar eta erdaraz, La polla, Santana, U2, Reincidentes, Extremoduro eta disko musika. **Bitxikeria:** bideoen alokairuak ematen dio Aitorri etekinik handiena. Musika hutsa salduz nekez lor daiteke denda zabalik mantentzea. **Etsairik handiena:** supermerkatu handiak baino kaltegarriagoa jotzen du Aitorrek piratakeria eta piratakeriaren gainetik banatzaileek ezartzen dituzten prezio altuak. **Esaldia:** “Zinea eta musika dira nire zaletasun handienak. Gaur egun hori izan daiteke, agian, honelako proiektu batean sartzeko arrazoi bakarra; gustukoa izatea”.m

Larrialdiak beti prest

Herritarren beharrei erantzuteko sorturiko organismo ezberdinek osatzen dute larrialdi zerbitzua eta bakoitzak arlo baten erantzukizuna hartzen du, egoeraren arabera osagarriak direlarik. Urtean edo egunean egiten dituzten interbentzioak eta irteerak batu eta zenbatuko bagenitu izugarritzko kopurua lortuko genuke. Honek adierazten du erne ibili behar dugula bi aurpegi dituen txanpon honetan, alde batetik arriskutik ahalik eta urrunen egoten saiatu behar dugu; eta, beste alde batetik, kontuan hartu beharko genuke, guk aurkakoa uste badugu ere, gure inguruan ditugunei gertatzen zaizkien gauzak ez direla beti izaten diruditen bezain larriak. Suhiltzaileak, DYA, Gurutze Gorria, Sorosleak, Ertzaintza eta Babes Zibila, denek elkarrekin harremanetan egon beharra dute eta ondo kudeaturik egon beharko dute egon daitezkeen larrialdiaz behar bezala arduratzeko. Honek guztiak behar duen koordinazio lana SOS Deiak-en bitartez egiten da (112 telefonoa).

[erreportai]

Larrialdiak entzutean ohituta gaude bertan eskaintzen diren zerbitzuak telebista eta pelikuletako irudi idealizatuekin erlazionatzeko. Askotan pentsatzen dugu "Urgencias"en bezala larrialdietan ere George Cloony bat topatuko dugula, baina agian ez dugu hori ikusiko. Baina bai, ordea, koordinazio, abiadura, ezagutza eta efikaziazko erakundeak. Hauxek dituzue.

Testuak: Maitane Burusko, Itziar Benedé / Argazkiak: Mikel Martínez

Gurutze Gorria itsasoari begira

Uribe Aldean Gurutze Gorriak interbentzio sail ezberdinak ditu, nolabait egon daitezkeen larrialdi mota desberdinei erantzun egokia emateko. Alde batetik, Larrialdi Garraio Sanitarioei dagokionez, DYAk anbulantziekin koordinatuz zerbitzu prebentiboak, laguntza postuetan sendaketak eta anbulantzietako garraioak egiten dituzte. Baina hau ez da Gurutze Gorriak betetzen duen eginkizun bakarra; aipatu bezala sail ezberdinez arduratzen da, mendiko erreskateetan, adibidez; eta eskolek eta Klubek antolatzen dituzten kirol martxak babestu eta zaintzen dituzte. Ertzaintzak mendi dispositibo propioa

sortu arte, Gurutze Gorriak erreskate lan gehiago hartzen zituen bere gain; orain Ertzaintzari laguntza osagarria ematen dio. Itsasoan ere lan osagarria egitea egokitzen zaio kasu batzuetan, hau gertatzen da adibidez hildakoak ateratzeko modu bakarra itsasoz denean, baina bestalde eta ohiko erreskateak egiteaz gain motorra matxuratuta dauden itsasontziak porturaino eraman behar izaten dituzte. Hau guztia aurrera eraman ahal izateko emisora ezberdinekin lotura dute: bai itsas emisora, bai Ertzaintza eta beste batzuekin. m



Arriluzen dauka egoitza Gurutze Gorriak eta handik abiatzen dira eurak beharrezkoak izan daitezkeen lekura

Fitxa teknikoa

Giza baliabideak: 192 boluntario (95 garraio sanitarioan, 23 mendiko erreskatean eta itsas salbamentuan 74). **Baliabide teknikoak:** 5 anbulantzia (horietako 2 medikalizatuak), Todoterreno bat eta itsasontziak. **Laguntza emandako kasuak:** garraio sanitarioan 3.161, mendian 324 eta itsasoan 1.531 (2000. urteko datuen arabera). **Prestakuntza:** lehen laguntzak, sorosketak eta larrialdiak, itsasoko sorosketa, politraumatismoak izandako pertsonen laguntzak eta garraio laguntzak. **Larrialdi ohikoenak:** anbulantziako garraioak, sendaketak, larrialdiko partehartzeak eta zaurituen ebakuzioak, besteak beste. **Martxan jartzeko denbora:** egunez 5-10 minutu eta gauez 5-15 minutu. **Lan eremua:** mugak Kantabrian eta Armentian.

Babes Zibila

koordinazioa eta prebentzioa



Udalaren menpeko erakundea da. Legez alkatea du buru eta honek tekniko baten arduran uzten du zerbitzu honen kudeaketa. Printzipioz, erakunde honen funtzioa edozein motatako larrialdietan koordinazioaz arduratzea da, bai eta bertan aritzen diren erakundeen artekoaz ere, istripu txiki bat izan zein katastrofe handi bat. Getxoko kasuan, horiek Babes Zibilak betetzen duen lanaren %10 izaten dira. Gainontzeko %90 lokal zein bide publikoan egiten diren jaialdi, kontzertu eta gertakizunetan prebentzioa eta planifikazioaz arduratzea izaten da. Konbenio bidez DYA eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean aritzen da eta datorren urterako aurrikusten da Alpina eta Subacuatica-rekin ere hitzarmenak egitea. m

Fitxa teknikoa

Giza baliabideak: 35 bolundres, arduradun bat eta aholkulariak (mediku, arkitekto, kimiko, ATSak eta abar). **Baliabide teknikoak:** babes zibileko 2 ibilgailu eta komunikaziorako 10 emisora eta 24 talki. **Martxan jartzeko denbora:** 20-30 segundo. **Funtzioak:** larrialdien koordinazioa, prebentzioa zein planifikazioa, larrialdi planak eratu eta formaziorako ikastaroak ematea. **Lan eremua:** legez 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek zerbitzu hau eduki beharko lukete.

Ohiko irudia.
Iñaki González Babes Zibileko kidea bere autoan herrian zehar

Artatzen dute egoitza suhiltzaileek. Han beti dago zeozer egiteko, denak prest egon behar du edozein larrialditarako.



Suhiltzaileak sua hil baino gehiago

Bizkaiko Foru Aldundiak zortzi parke ditu, eta hauerako bat Leioan dagoen Artatza dugu. Bertan 45 gizonen egiten dute lan txandakako sistema jarraituz. Emakumezkoentzat ere zabalik dago lehiaketetara aurkezteko aukera; hala ere, Angel Argatza suhiltzailearen esanetan gutxi dira aurkeztzen diren emakumeak, horregatik oraindik ere ohituta gaude suhiltzaile izatea gizonen lanbide bezala ikustera. Suhiltzaileek betetzen dituzten larrialdien artean %90 SOS Deiak-ek kudeatzen dute. Hauek izaten dira etxe eta industriako suteak itzaltzen, auto istripuetan, salbamenduetan eta abar, baina istripu eta hondamendi handiak gertatzen direnean Eusko Jaurlaritzako aholkulari teknikoak koordinatzen ditu suhiltzaileaketa beste larrialdi zerbitzuak elkarrekin. m

Fitxa teknikoa

Giza baliabideak: 45 gizon, nahiz eta oposizioak emakumeei irekiak egon. **Baliabide teknikoak:** ibilgailuak, hiriko ponpa-auto astuna, ontzi-autoa, beso-artikulatua, tresna ezberdinak dituen furgonia, basoko ponpa-auto astuna, apuntalatzeko kontainerra, mediku zerbitzu aurreratuaren kontainerra eta langileentzako garraioa. **Martxan jartzeko denbora:** 5-7 minutu batez beste (%80). **Larrialdi ohikoak:** herriak eskatzen duen guztia: industriako eta etxeko suteak, salbamentuak, errepideetan kotxeak askatu... **Lan eremua:** Erandiotik Plentziaraino.



Sorosleak etengabe entrenatzen dira gorputzaldi betean egoteko. Argazkian, Plentzian proba batean parte hartu zuten lagunak

Sorosleak hondartzetako jagoleak

Duela 40 urte hasi zen Sorosketa deiturikoa eta gero eta jende gehiagok hartzen du eginkizun hau kirol beka baten truke. Azpimarratzekoa da, beste larrialdi zerbitzu batzuetan ez bezala, emakumezkoen kopuru handia. Normalean jende gaztea eta ikasleak izaten dira; gero bestelako lankidetzak jasotzen badute ere, batez besteko adina 22 urtetan dago. Eta egin beharko duten lana dauden hondartzaren arabera izango da, adibidez Getxoko hondartza eta Sopolakoaren artean badago aldea. Izan ere, Sopolan itsasontzi txikiak gordetzeko aukerarik ez dago, duen kokapena eta itsasoaren indarrarengatik. Horrek, gainera, adierazten du askoz eta erreskate

gehiago egingo direla Sopolan Getxon baino. Kontuan hartuz bigarren honetara adineko jende asko etortzen dela paseatzera, izango dituzten interbentziorik gehienak lipotimiak, intsolazioak eta tentsio arazoak izaten dira, besteak beste.

Aurten ekainaren 16an hasiko da kanpaina eta irailaren 9ra arte egongo da zabalik, tarte horretan egunero egongo da sorosle zerbitzua gure kostaldeko hondartzetan goizeko hamaiketatik hasita arratsaldeko zortziak arte. Kanpainari hasiera emateko, urtero bezala, datorren ekainaren 13an erakusketa bat egingo dute hondartzan bertan. m

Fitxa teknikoa

Giza baliabideak: Bizkaia osoan 160 inguru, eta horietatik %40 emakumezkoak eta %60 gizonezkoak. **Baliabide teknikoak:** lehenengo laguntzarako materiala laguntza postuetan, oxigenoterapia, lepokoak, eta abar. Itsasontzi txikiak guztira 6 dira (Plentzia, Lekeitio...) **Prestakuntza:** Bizkaian kirol hiriarren barnean kokaturik dagoenez federazioak darama eta honela dabil martxan duela 40 urtetik hona. Federatua egoteko noski ezagutza batzuk beharrezkoak dira. **Larrialdi ohikoak:** tokiaren arabera, hondartzatik 200 metrotara dauden pertsonen erreskatea, intsolazioak, lipotimiak eta abar. **Martxan jartzeko denbora:** berehalakoa. **Lan eremua:** Bizkaiko kostaldeko hondartzetan postu ezberdinetan banaturik.

DYA bolondresen indarra

Urteko egun guztietan 24 orduz, hiru txandatan banaturik, egunero 21 bolondres aritzen dira. Bizitzak salbatzea eta laguntzea helburu duen zerbitzu honek premiagabeko anbulantzien mugimendu nabaria ikusten du. Askotan benetako larrialdiak ez diren gauzengatik anbulantziak eskatzen dira, bitartean beste bizitza bat arriskuan egon daitekeela kontuan hartu gabe. Horregatik beharrezkoa litzateke kontzientziatzea eta jardura hau serio hartzea. Horretarako denok ezagutza minimo batzuk edukitzea ere komenigarria izango litzateke. Askotan tentsioaren beharrekada, erorketak eta antzeko istripuak gertatzen direnean oke-rena pentsatzera jotzen dugu eta berehala anbulantzia deitzeko joera izaten dugu; hau ezjakintasunaren ondorio da. Horregatik, DYAk antolatutako oinarriko ikastaroetan boluntarioek ez ezik herritarrok ere parte hartu dezakegu. m

Fitxa teknikoa

Giza baliabideak: 80 bolondres. **Prestakuntza:** lehenengo laguntzetarako ikastaroak eta birziklapen ikastaro etengabeak. **Baliabide teknikoak:** azken teknologiako hiru anbulantzia medikalizatuak, bizitzen laguntzeko oinarriko anbulantzia bat. **Martxan jartzeko denbora:** minutu bat. **Larrialdi ohikoak:** gaixotasunak, erorketak, erasoak... **Lan eremua:** Uribe Aldea gehien bat.

Astelehena 12:30, DYAk goizeko txanda Areetako egoitzan gerta daitekeenaren zain.



Zéozar alkarréaz iteko

- Guázen...!
—Guázen Pórture.
—Guázen béste taberna baterá.
—Guázen pelíkula bat ikusten.
- Yóngo gara...?
—Yóngo gara San Mamesera?
—Yóngo gara Berangoko yáietara?
—Yóngo gara nóнора afálduten?
- Zéitik ézkoaz...?
—Zéitik ézkoaz danok Ibilláldire?
—Zéitik ézoaz aítzéaz mendiré?
—Zéitik ézkoaz yántzan íten?

Nónor konbídareko:

- Etór zatez / etór zateze...
—Etór zatez etzera gure dózunen.
—Etór zateze gurera bázkalduten domékan.
—Lotú zateze hemen gure bádozue.
- Gúre dozu / gúre dozue...?
—Gúre dozu ardaú apur bet?
—Gúez etor(ri) gúre dozue yántzara?
—Gúre dozue alkarréaz yon gaitézen?

Adibidek:

- Arrásti ona íten dau. Zéitik ezkoaz kánpora?
—Baí, sásoi da etzétik úrteteko.
—Guázen paséotxu bet íten.
—Norántza jóngo gara ba?
—Yóngo gara Pórtu Zarrara?
—Baí, guázen hara, itxaso ikusteko.
—Itxaso ikusteko bai..., txori edérrak zare bíok. Zúok ikus(i) gure dózuena da han dabilzézén neskato gáztek.
- Egunon Mikel, gaur lagun bátzuk datorkuz afálduten. Gúre dozu zuk bere etorri?
—Afálduten? Ez, ez, gaur guk bere konbídáduk dekuz etzen.
—Etór zatez béste egun batén ordun, datorren zapátun edo.
—Baí, ederto. Ordureko íngo du plana.

Berba barrik:

nónon, nóнора...: non edo non, non edo nora, e.a..
yántza: dantza.

[akabuko punte]

Txomin Udondo

Errimetan maisu

Oingonetan Txomin Udondoas íñ dogu berba. Goso-goso egon gintxesan Txominek berak beran etzen ondón íñ eun txokon, Errioxako ardaú eta dusti atara yeuskun. Ixen ere Txomin albañile ixen san bere bisitze oson. Albañile bear beste senbaki baten kontako dogu. Baye beste abilesi batzuk bere badekos: frasetan errimek itten maisu da eta asko gustetan yako onetan artikulun leiduko dosun les. Berau itten dauenari bertsolari geittuen yako amen eta ditzolari beste leku batzuten

Testua: Alberto Gonzalez Castro / Erretratua: Mikel Martinez

—Non yayo sintxen?
—Ni yayo nintxan Berangon, dekoas irurogetamar urte, Berangon, Etxebarriyen, or etzalden, Etxebarriyen. Irurogeitamar urte deukoas.
—Non bixi ixen sara oiñ arten?
—Oiñ arten bixi nintxan, hamazortzi urte arte edo, Etxebarriyen, eta gero au etze íñ genduen anaíen eta bion artean, zapatuten eta domeketan, hiru urte tarda gendun itten, es da brome, gero, e! Eta sokeas alza materiala dustik, poleas, bion artean. Hau etze barri innte dao.. Eta gero, ona etorri nintxen.

Anaie bi eta arrea bat ixen gintxen. Arrebe paralitike san, aparatokas egon san, eta bieki il siren eta txarrena lotu san emen, bitxo txarrena (beran buruas esaten dau). Beste onenak, bieki il siren. Eta emen nago; seme bi deukoas, deukodas, bata Iñaki deritzen bat, Iñaki, eta beste Juan Manuel. Bat bixi da Santa Anan, Marcosen alabe bateas eskonduta eta beste dekot emen., Esperantza deritzan bateas eskonduta, emen goien bixi da. Eta emen bixi gare, ba, eta emen gagos, emen ser nai dosuen, prest eitteko.

—Beti íñ dosu euskas?
—Nik beti íñ dot.
—Eta noas íñ dosu?
—Nebarreba dustik eta aíteamek. Danak iten du euskera guk, beti euskas. Oiñ arten. Eta gure semeri bere. Gure andre es daki euskas baia gure etzen euskas iten da gaur bere bai, andre es dau berbarik itten baya ulertuten dau. Getxoko portugesa esetu sendun suk? Ba, bere alabe da ori eta orrek es daki euskera baya gurean euskas íñ da beti. Horreas kondisiñoas eskondu nintxan

andreas: “Si te casas conmigo tienes que aprender euskera o sino, tienes que oír toda la vida. Pues sí” eta holan, gurean beti íñ da euskas. Ni euskaldune nato nas eta es dot galtxen ori. Jainkok eroten nauenen, itxi berkot, baya osten arten es.

—Etxebarriyen baserririk euki?
—Es. Etze bat euki gendun, iru beye euki gendusen, baya gurea es san Etxebarri. Gure osabe batena san, eta an “Agarre” mendien euki gendun or lantzar bat (landa bat) eta ara botaten gendusen beyek eta ekarten neuen nik... Patxo “panaderu” difuntu, yoten san ogikes saldi ganetik Armintzeraño. Eta nik koixten neusen emeko ogixek, barrioko ogixek, saku pulpe baten barruen eta ekarten, sera, andi, a, estankutik ona, “Alkatene” ra; or alkate san nire osabe difuntu. Es dakixu or aurren dagoen dendea edo taberna, ori taberna? Bueno, ba ori alkate nire osabe san, nire aitena, nebarrebak siran aite eta alkate. Pedro san ori, Pedro Udondo. Eta ordun alkate imini eutzen serari, serari, etzeri “Alkatene”... Nire osabe san ori. Eta orti nik orti saku pulpe bat artu lepoan,....

—Ser san pulpea?
—Pulpea san, itten da, a, ganaduk yateko, erremolatxea eta ostoa txiki-txiki-txiki íñ eta aiket betetuten siren sakuk eta aik emoten, pentzu, ganaduri. Siketuten itxi ta a emoten geuntzen ganaduri. Alau pulpe saku bet ekarten nauen nik ogixes orra alkatenera, izekoana. Senbet bider entzun dot nik: “Ori mutiltxo es da asko asiko, ba”. Ikusi bere es sakun aspin ni!. Deskantxu bet itten nauen orra, orra Etxebarrixiuen, orra or dagon etzen, etze zartsuen (zahartsuan), eta beste bat

Uriartean, eta alkatenera. Senbet bider entzun dot: “Ori mutiltxo es da asko asiko, ba”. Sakun aspin ikusi bere es ni. Egunen-egunen, etzera etorri eta igual Patxo puñetero bosteun bost ogiye igual bat edo bi izekok artu itte eusen eta izekok: “benga bota eta jan eixu batan bat biden” eta nik biden yan dotena eta nik atzera ostabere meka-guenros! Karraderan (arinetan) ostabere. Ori es da brome, gero, e! Eta etzen bronka ostabere se ganaduk atara ber itten neusen etzen arek ganaduk ataraten neusen ostabere etzen... Nire biximodua olantxe ixen da.


—Arte dekozu bertsok itteko, “Txomin Udondo, beti oines eta beti ondo”...
—Baí, bai. Pilatos tenemos buenos tratos, Pilatos difunto bertsolari, Berangoko, jo! Ba, alargun bet egon san or, ortan, alargun bet. Ordun, alargune ba, mundu dusti ibiltzen san atzen. “Ser pasaten da Manuel?”, ta “Manuel Pilatos, andamos a ver si hacemos tratos”. Ori Pilatosek esate euen. Eta... “zer in dozu ba?”, “Kanta dotzet apur bet Errufinari”, “Zer kanta dotzesu ba?”
Errufina ortako / Etze baten yaue / Akorda ingo yatzu / Trinidad gaue. / An ibiltzen / Firri eta farra / Oian aspin egon / Biregarro arra.

Olauk a, olauk a... bueno, astute dekoas ya baia! Irurogetamar urte dire. Bueno, nik ya ordun amasapi urte edo euki nendusen, amasei edo amasapi, beittu senbat urte diren... Baya orrek jenerok ez dire astuten, ondiño buru ez dao hain a... Bertsolari itzela san Pilatos.

—Selan ikisi sendun orrek errimek itten?
—Nik beti íñ dot euskas eta beti, sarra dustikas egon nas ni berbas. Burutik urten askok. Nik bertsio itzelak bota dotas. Eta oraintxe bere. Berez, berez urtetzen dires. Ni, a, Pilatosen moduko nas orretan. Esan eusten: “Pareces a Pilatos para los mismos tratos”. Eta gusta itten dat. Niri sekule es datana gusta da kritikante eta inori txar itte. Ori sekule ez dot íñ. Mesede in al badot emen nau. Mesede itteko prest beti, beti, eguno beti prest egiteko emen nao ni, txarrik itteko es, e! Txar itteko edoseinek balio dau; on itteko balio bear da. Ostikadak emetoko asto batek bere balio dau.

—Bertsok botaten eusen beste pertsonan bateas akordaten zara?
—Es, gitxi.. Orixe san amen egoten sana eta niri asko gustaten yaten. Nire itzel gustaten dat ori. Emen ingerun es da egongo; nik akorduan es dekot, parajekorik. Bueno leleau asko egon dire baina niri gusta ixen dat ori eta atxineko dekot buruan sartute, a esin dast sekule astu niri.

—Eta non botaten eudesen bertsok?
—Edosein lekuen, edosein lekuen. “Ser, Manuel, como tienes la vida, cruel? Edo olau generok. Edo “basoas? Es, basoa es, bardiñera. Ni bertsok itten



itzela nas, gusta itten yat eta. Berez urtetzen deuste.
—Bertsio geiagorik?
—“A Rufina Berrutiñe lle leve una camisa para que me tiñe” esan eun batek. “Y ya te tiño?” “Sí, lo que me hizo es piñó (lapurtu)”.
—Euskas eta erderas iten dosus orrek errimek?
—Euskas eta erderas egiten dosus, orrek errimek?
—Baí, bai, es dau problemarik.

—Entzunda deku emen ingerun beste bertsolari betzuk bere ibili sirela, Asensio Bidaurrezaga, Patxiku Gorordo... esetu dosus orrek?
—Baí, bai esetuko es doas, ba! Jesus Bideurrezaga bere. Jesus es san bertsolari ixen, baye beste anaie bai. “Jesus Bidaurrezaga, haga o no haga”. Angelon bere egon san. “Angelon, hola, egunon!”.
—Asensio sanas akordaten sare?
—Ya astute dekot. Gaste il san. “Asensio, en el

[uribertsoan barrena]

Kimuberriak

Hitzaren kirol nazionala sendo hazten ari da gure eskualdean. Izan ere, geroz eta sustraituago dagoen zuhaitzak geroz eta adar luzeagoak ditu. Eta dagoeneko udaberria heldu dela suma daiteke bere adarretan, kimu berriek lore ezin ederragoz hornitu dutelako.

Testuak: Xabier Paia, Josu Arroio eta Joseba Santxo

Algortako Bertsolari Eskolak ikasturte honen hasieran ekin zion aspaldiko ideia bat martxan jartzeari: talde berezi bat sortu zuen, bat-bateko bertsogintza lantzeko prest zeuden Uribe Kostako haur eta gazteentzat. Azken hilabeteotan asteartero batu izanak espero zitezkeen baino fruitu hobeak eman ditu: aurtengo maiatzaren 18an ospatutako Bizkaiko eskolarteko bertso idatzien txapelketara gure eskualdeko 13 neska-mutil heldu ziren. Ordubete izan zuten hiruna bertso osatzeko, bi bertso gai bana emanda eta hirugarren bertso bat oinak emanda. Ordubetegarrenean epaileak bildu ziren eta handik gutxira sari banaketari hasiera eman zitzaion. Espero ez bagenuen ere, laster batean sortu zitzaizkigun ospatu beharrekoak:

4. eta 5. mailako txapelduna, Jone Uria, Algortako San Nikolas ikastolako; 6. mailakoa, Leioako Betiko ikastolako Arrate Illaro; DBHko 1. mailako txapelduna, San Nikolas ikastolako Itxaso Paia; eta guzti hau gutxi balitz, DBHko 3. mailako bigarren saria Betiko ikastolako Beñat Vidalek jaso zuen. Vini, vidi, vinci. Lehenengo aldia da gure eskualdeak hainbeste sari lortzen dituen Bizkaiko bertso idatzien eskolartekoan eta oraindik ikusteko dago bat-batekoan zer gertatzen den. Zorionak irabazle eta parte hartzaile guztiei!

Bertsolari gaztetxoaren eguna Bestalde, maiatzaren 26an "Bertsolari gaztetxoaren eguna" ospatu genuen lehendabiziko Algortan, "hasi bertsotan, gaztetxotan" lelopean. Makina bat bertso eskola dauzkagu Uribe Kostako ikastetxeetan zehar, sekulako haur eta gazte ikasle pila daukatenak,



Gure loreetako batzuk: Itxaso Paia, Amaia Gonzalez, Jone Uria eta Asier Gonzalez.

eta oraingoan pentsatu genuen aukera ezin hobe izan zitekeela bertsolari txiki horien gana hurbiltzeko eta eurentzat espreski antolatutako jai handi bat egiteko. Eta hala egin genuen: arratsalde eguzkitsua izan zen zapatu hartakoa; umeez bi bertso egin behar zituzten eta ondoren bietako bat hautatu, mikrofonora hurbildu eta bertatik bota. Ondoren, bertsotruk askaria eman genien eta posterrako bertsosario ikaragarria: Iratxe Ibarra, Beñat Gaztelurrutia, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia. Gaijartzaile lanetan eskolan dabilen Joanes Igeregi sopoloztarra aritu zen. Egun bikaina, aurrerantzean urteroko ospatuko duguna, inguruotako gazteak

bertsotan has daitezten eta, batez ere, bertsolaritzak adinik ez duela jakin dezaten. m

Bertsoagenda

BALKOITIK BALKOIRA

Igor Elortza eta Jon Maia
2001-VI-22 (barikua) 22:30
Algortako Portu Zaharreko
Etxetu plazan

BERTSO JAIALDI MUNDIALA

Andoni Egaña, Xebastian Lizaso,
Igor Elortza, Maialen Lujanbio,
Aritz Lopategi eta
Jexux Mari Irazu.
2001-VII-11 (eguztina) 22:00
Algortako Bihotz Alai plazan

“Uribe Kostako gazteek sari mordoa eskuratu zuten Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan”



Xapelketaren dokumentazio zentrua

10ekotxikian Oihane Enbeita

- Definitu ondoko enbeitatarrak berba banarekin: Kepa Enbeita "Urretxindorra", Balendin Enbeita, Jon Enbeita eta Oihane Enbeita.
Urretxindorra: karisma, Balendin: osasuna, Jon: umila, Oihane: txikia.
- Oholtza gainean irribarra eta negarra uztartzen dakien bertsolaria zarela esango banizu, konforme egongo zinateke? Hori entzutearekin batez ere. Ematen duena baino gehiago esan nahi du.
- Txapelketa nagusia ate joka dugu. Zein da zure helburua erronka handi horri begira?
Neure burua zoriontzera heltzea.
- Antzerkia, bertsoak... bizimodua aurrera ateratzeko bide gaitzak, ezta?
Bai. Biak maite eta biekin batera bizi ezin. Eta aukeratuta ere gatz.
- Zutabegile ere bazara. Kazetaritzaren xarmak erakartzen al zaitu?
Idatzeko zaletasuna dut eta sarritan esateko gogoia. Gehien erakartzen nau eta garatzen dut subjektibotasuna.
- Bertsolari bidaiariak modan daude aspaldion. Zein da zuk egin duzun bertso bidaiarik kilikagarriena?
Momentu aproposan egin nuen Estatu Batuetarako eta bertako zenbait momentu grabatuta gelditu zaizkit. Ikasi ere egin nuen
- Plaza librean, bertso afarian, txapelketan... zeinetan ibiltzen da eroso Oihane?
Eroso sentitzen den momentuetan. Ez dago espazio espezifikorik.
- Bertso kartel hau ikusiko bazenu, zer esango zenuke?
Maialen Lujanbio, Oihane Perea, Iratxe Ibarra, Estitxu Arozena, Amaia Agirre eta Oihane Enbeita.
Eta gaijartzailea zein da?
- Getxo Antzokiak zer dakarkizu gogora?
Harreman sentimental bat dut Getxo Antzokiarekin. Babesleku eta tentsiogune izan da niretzat. Fase pertsonal ezberdinetan zapaldu dudana plaza.
- Uribe Kostako bertsolaritxoek sari mordoa eskuratu dute aurtengo Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan. Egiezu koplaxo bat.

Errez ala ozta-ozta / gitxi ala asko kosta / zueri esker bertsogintzaren /altxor da Uribe Kosta m



Bertsoglfikoa GALDERA

Nola du abizena 1987. urtean Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan bertso idatzien 1. saria eskuratu zuen algotarrak?

Ondoa erantzun bakarreko 6 galdera dituzu. Erantzun zuzenak eman ondoren, pasatu zenbatutako letrak dagokien laukira eta goian eskatzen den abizena irtengo zaizu.

1) Nola du izena 1994 eta 1996 urteetan Bizkaiko txapela jantzi zuen bertsolari genial patilladunak?

1 2

2) Zein da Euskal Herriko egungo bertsolari txapeldunaren jaioterria?

3 4

3) Zein dira bertsoaren oinarritzko osagaiak? Doinua, errima eta...

5 6

4) Sopolako ikastolan 1989an hasi ginen bertso eskolak ematen ALBEkook. Nola du izena bertsolaritza aspalditxotik landu duen ikastola horrek?

7 8

5) Azpeitiarra, gizonkotea, bizarduna, kantari ona, bertsotan arina, bizia eta bromosoa. Zein da bertsolari honen abizena?

9 10

6) Zornotzar jator eta sentibera hau bertsolaria izan zen lehen. Orain ospe handiko eta moda-modako kantautorea dugu. Nola du abizena?

11 12

PELLO

000000000000
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12

(Erantzuna: UNZURUNZAGA)

Tour-era

Euskaltel-Euskadi taldearen eskutik munduko probarik garrantzitsuenean parte hartuko dute Getxoko txirrindulari gazte hauek.

Testuak: Iñigo Landaluze / Argazkiak: Mikel Martínez

Iñigo Landaluze

24 urteko mutiko honek aurten Euskaltelen profesional bezala hasi da. Punta Galean hasi zen eta etorkizun zabala dauka begien aurrean.

Gogorra suertatu zaizu maila profesionalerako jauzia?

Hasiberria naiz eta horregatik, beharbada, ez zait hain gogorra egin; hori bai, dinamika asko aldatu da.

Profesional izateak gauza asko baztertzera behartu al zaitu?

Nahi izanez gero denetarako denbora dauka batek, baina egia da gauza batzuk alde batera utzi behar direla. Esaterako, parrandan irtenez gero, errendimendua jaiste segurua da. Baina tira, hori norberaren esku dago.

Entrenatzeko orduan, arau jakin batzuk jarraitu beharko dituzu, ezta?

Bakoitzak jakiten du zeintzuk diren bere gabeziak eta hauen arabera entrenatuko da. Hala ere, nahi izanez gero entrenatzaile fisikoa badaukagu. Bestalde, urteko sasoi ezberdinen arabera ere, gorputza prestatzeko kirol ezberdinak egiten ditugu.

Euskal Herrian txirrindularitza ondo errotutako kirola da...

Bai, Euskadi da txirrindularitzaren iturburua. Momentu honetan maila profesionalan 54 euskaldun gaude; beraz, harrobi ederra dagoela bistan da. Jende asko hona etortzen da korrika egitera, hemen maila altua delako eta dena primeran antolatuta dagoelako.

Zer deritzozu Euskal selekzioei?

Euskal selekzioaren alde nago, noski, baina gauza guztien gainetik profesionaltasuna egon behar du. Heltzen diren eskaintzak aprobetxatzea da nire eginbeharra.

Txirrindularirik gogokoena?

Nire garaian Miguel Indurain zen ezagunena. m

Roberto Laiseka

Tour-erako prestakuntzan buru-belarri sartuta dago 31 urteko txirrindulari hau. Eta garaipen aipagarriak lortuak ditu, Espainiako Itzuliko etapa kasu.

Zeintzuk dira txirrindularitzaren arriskurik handienak?

Eguneroko lanean topatzen ditugunak: trafikoa, errepidea, autoak...

Tour-erako prestakuntza beste txapelketen aldean, berezia al da?

Ez, prestakuntza berbera da. Baina egia da uztaileko prest egoteko, apiriletik aurrera gogorrago entrenatzen ari garela.

Txirrindularirik gogokoena?

Ni gaztea nintzenean Lemon nuen gogokoen. Baina hori normala da, gaur egungo 17 urteko neskatoei Brad Pitt gustatzen zaion moduan.

Etorkizun handiko txirrindulari gazteren bat?

Zalantza barik, Iñigo Landaluze.

Txirrindularitza, bakarkakoa ala taldeko kirola da gehiago?

Printzipioz taldeko kirola da, baina bakarkakoa ere badela esan daiteke nor bere kontura entrenatzen duelako. Lasterketetan, aldiz, taldeko lana nagusitzen da.

Dopping-aren gaia oso present egon da azken urteotan...

Maila altuko edozein kiroletan beti hitz egingo da honi buruz. Hala ere, mundu mailan dauden kirolen artean garbiena da txirrindularitza eta atletismoarekin batera, kontrol gehien pasatzen dituen.

Hasi zinenean iritsi zaren lekura iritsiko zinela imajinatzen al zenuen?

Batek beti dauka Tourrera joateko ilusioa. Orain Euskaltel-i esker lortu dugu. Lehen selekzioan ibiltzen ginen eta ez zegoen horretarako aukerarik; orain, aldiz, Euskadi-Euskaltel taldearekin aukera hori aurkeztu zaigu. m



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Escaribada

Catalunyako ohizko entsalada

Udako beroan, zer hobe entsalada on bat baino? Escaribada Catalunya aldean prestatzen duten entsalada berezia da. Hotz jaten da baina aurretik osagaiak labean sartu behar dira. Hasteko, ondo garbitu ondoren berenjenak, piper gorriak eta kipula (azala eta guzti) labean sartuko ditugu ondo bigundu arte. Eginda daudenean, azalak kendu eta norberaren gustura zatitu, nik tirtetan egien dut. Nahi izanez gero, arrautza pare bat egosi daitezke entsaladari gehitzeko eta erremolatxa apur bat ere bai. Hau guztia, plateran jarri, oliba olio, gatza eta ozpina gustuaren arabera bota eta entsalada biribiltzeko dozena bat oliba beltz barreiatu gaintetik. On egin, lagunok! m

osagaiak (2 lagunentzat)

berenjena bat • kipula bat • piper gorri bat • arrautz bi • oliba beltzak • oliba olio • gatza • ozpina



Mikel Martinez



itsaso arana / jolastoki-koa

Galderak

ardoei buruz egiten ausartzen ez garen galderak

- Arrainekin ardo beltza edan daiteke?**
Arrain urdina bada, oso ondo doakio ardo beltza. Beltza makailua, erreboiloarekin eta saltsan kozinatutako arrainekin oso ondo doa. Ardo beltz hauek arinak, gorputz gutxiak eta gazteak izan behar dute.
- Ardoa denbora pasatu ahala hobetu egiten da?**
Ardoa etengabe aldatzen ari da. Hobera edo txarrera egin dezake. Denbora igarotzen den neurrian, samurtasuna eta espezien aromak gehiago azaltzen dira; mahatsaren ezaugarriak eta lurraren sena, berriz, galduz doaz.
- Ardoak bidaiekin txarrera jotzen du?**
Gaur egun, ardoak edozein bidaia gaintzitzeko prestatuak daude. Bidaia baten ondoren 10 egun itxaron behar dira ardoak bere onera itzultzeko.
- Ardo zuriak urteen poderioz txarrago jartzen dira?**
Egurretan egindako ardo zuriak bost urte igaro ondoren hobetzen dira. Egurretan fermentatutako ardo txuriak bi urte igaro ondoren hobetzen dira.
- Ardo gorriak hasiberrientzako ardoak baino ez dira?**
Ezta pentsatu ere! Kontua da ardo hauetan sorterriko mahatsaren kalitatea ez dela aintzat hartzen. Ardo mota honetan freskotasuna, gaztetasuna eta fruta zaporea izatea estimatzen dira.
- Mahats beltzen mustioa beltza da?**
Mahats zurien kolore bera du. Ardoaren kolorea mahatsaren azalak ematen du. m

ARDOEN GAINKO GALDERARIK BADUZU:
Faxa: 94 491 13 37 / e-posta: aldizkaria@euskalnet.net

San Juan bagileko denbora ederreko...

San Juan ohikuneak naturako elementuekin lotuta daude eta egun honetan egiten diren erritoen artean sua, ura eta landareekin zerikusia dutenak dira garrantzitsuenak

Testua: Akaitze Kamiruaga



San Juan sua, jai honetako sinbolorik adierazgarriena da (Algorta iaz)

Gure arbasoek naturaren zikloen arabera egiten zituzten euren jaiak. Antzinako gizon-emakumeek ez zuten egutegirik ezagutzen, eta denboraren joan-etorriaz jabetzeko eguzkiak, ilargiak eta naturak izaten zituzten aldaketetan fijasen ziren. Solstizioen etorrera bereziki ospatzen zuten, bai neguko (abenduaren 21ean), zein udakoa (ekainaren 21ean). Bigarren honekin uztartuta dago San Juan eguna, urteko egunik luzeena.

San Juan ohikuneak naturako elementuekin lotuta daude eta egun honetan egiten diren erritoen artean sua, ura eta landareekin zerikusia dutenak dira garrantzitsuenak eta ezagunenak. Gaur suarekin zerikusia dutenak aipatuko ditut.

San Juan sua. Jai honetako sinbolorik adierazgarrienetarikoa dugu. Eguzkia eta sua oso lotuta daude egun honetan, bai bata eta bai besteak argia eta beroa ematen dizkigutelako. San Juan bezpera ilundean, suak pizten ziren herriko enparantzara, baserri, soro eta bidegurutzetara. Gaur egun ere halaxe egiten da. Jendea sutearen inguruan biltzen zen eta honen moduko esaldiak esaten zituen: San Juan

bagileko / denpora ederreko / artoak eta gariak kaxan gordetako / zapoak eta sugekak surten erretako / gora San Juan. Gero suaren gaintetik salto egiten zuten, begizkoaren, azaleko gaixotasunen eta sorginen kontra babestuta egoteko.

Etxeko abereei ere errauts gaintetik pasarazten zitzairen, hauek ere kalte guztietatik libre izan zitezkeen. Soroetara ere egiten zuten osteratxo bat sutan zeuden gabilekin, lapurrengandik, sorginkerietatik eta pizti txar guztiengandik libratzeko eskatuz.

San Juan suarekin beraz era askotako eskariak egiten ziren; azalako gaixotasunen kontrako babesa (legena, ezkabia, sarna); sorginak eta lapurrak uxatzea; pizti kaltegarriengandik babestea (txakuraren haginkadak, sugearnak...); uzta ziurtatzea... eta leku batzuetan batu dugunez, ezkontzaren iraupen luzea.


Amaitzeko, esan behar da San Juan bezpera gaua berezia izaten zela, gazteek mendi tontorretara igotzen zuten eta hurrengo egunera arte egoten ziren eguzkia dantzaz irteten zela uste zutelako. Plan hoberik izan ezean, hementxe duzue bat San Juan bezperarako. m

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarrikobaso 15 48990



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

[aitormenak]

José Martínez

Tamarises jatetxeko maitrea

Nork ez du ezagutzen, izenez bada ere, Tamarises jatetxea? 30eko hamarkadan zabaldu zuen Jose Mari Lazkanok eta harrezkero familia beraren eskuetan dago. Gaur egun Lazkanotarren hirugarren belaunaldiak darama negozioa. José Martínez, Pepe lagunentzako, orain dela 30 urte hasi zen han lanean, jatetxeko maitrea da; makina bat gauza ikusiak ditu bertan.

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martínez

Pepe, zer da maitre bat?

Nik beti konparazio bera egiten dut. Pentsa ezazu antzerkian. Maitre bat, nolabait antzerki zuzendari baten modukoa da. Aktoreak zuzentzen ditu, hau da pertsonala, kamareroak... Eszenatokia jatexea bera da, eta bertan denak egon behar du bere lekuan, ontziteria, dekorazioa, giroa... Hori guztia zaindu behar du maitreak. Eta gero jakina, gidoi on bat egon behar du, bestela nekez izan daiteke obra bat ona, eta gure kasuan, gidioa jatetxeko sukaldea, presatzen diren platerak dira, eta bodega ere bai. Gidoia ona ez bada, hau da, zerbitzen dena, maitre batek ezer gutxi egin dezake. Gero, egun bakoitza estrainaldi baten modukoa da, publikoa, hau da gure bezeroak, desberdina delako.

Ez da erraza izango jendearekiko tratua?

Psikologoa izan behar du batek, jakin behar du zein mahaik behar duen laguntza eta arreta eta zeinek ez. Adibidez, gure bezero askok negozio bazkariak egiten dituzte bertan eta eurentzat janaria garrantzitsua bada ere, are garrantzitsuagoa izaten da esku artean darabilten negozioa. Batek jakin behar du, urrun egoten, baina baita erne egoten ere. Horrelako kasuetan lau aldiz baino ez da joan behar izaten mahaira: hasieran ardoa eskaintzera, gero lehenengo platera, ondoren bigarrena eta, azkenik, postrea eta kafea. Eta bat ez da gehiagorako mahaia horretara hurbildu behar. Beste batzuetan, berriz, bezeroaren gainean ez bada go bat, kasurik egiten ez diozula uste du bezeroak eta horra gehiagotan joan behar izaten da, platerak aholkatzera, ardoa...

Jendeak ba al daki mahaian portatzen?

Gero eta gehiago. Nik, eta gure jatetxeaz ari naiz, jendeak ederto portatzen dakiela ikusten dut egunero. Beti dago baten bat, baina oso gutxi izaten dira. Jendeak badaki zelan hartu kopa, zelan utzi kubiertoak jan eta gero, zein den gurinaren aiztoa, badaki ez duela arraina jateko aiztoa ahoratu behar... Gehienek hori guztia badakite. Bestalde, badaude amorrua ematen didaten portaerak, adibidez, bere ondoan bazkaltzen ari diren mahaikideak kon-

tuari hartzen ez dituen pipa erretzailak. Gerta daiteke ondokoak bisigu bat jaten egotea eta dirutza hori ordainduko duenak pipa zaporea baino ez dio igarriko arrainari. Gauza bera gertatzen da gehiegi perfumatzen diren andreekin. Amorratzen nau pertsona horien bestee-ganako errespetu faltak.

Zer da mahai batean sekulan egin ezin daitekeena?

Ukondoak mahai gainean jarri, horrek sutan jartzen nau, makila batekin hurbildu eta ukondotan emango nioke hori egiten duenari (barreka). Oso antiestekoa iruditzen zait. Badago baita ere, ardoa dastatzeko orduan erretzen duen pertsonarik, berak ordainduko du eta botila berarena da, eta nahi deuna egin dezake baina... Horrelako gauzek nire onetik ateratzen naute. Hala ere, zorionez gutxi izaten dira horrelako gauzak egiten dituztenak.

Jateaz, edateaz asko dakien jendea egon bada gure hemen, ezta?

Asko, asko. Nik beti bezeroengandik ikasten dut. Beti. Adibidez, Neguriko jende nagusi asko, munduan ibiliak direnak kultura gastronomiko itzela dute. Nire lana izugarri gustatzen zait, ez naiz ikasten aspertzen, sukaldaritza-rekin zerikusia duen guztiak txoratzen nau beste batzuk, adibidez, futbolak txoratzen dituen bezala; ahal izango banu egunero jate-txe berri batera bazkaltzera, ezagutzera, ikaste-ra, eta gozatzera joango nintzateke.

Jendearekin tratatzen egin behar duzu lan, egoera zail ezerosoren bat bizitzea tokatuko zitzaizun, ezta?

Lanbide honen parte da baina ez dira sarritan ematen. Niretzat, mingarrienak ezagunak diren bezeroen famili eztabaida iskanbilatuak izaten dira. Momentu txarrak izaten dira, batez ere, batek ezin duelako ezer egin. Gero

mozkortiak egoten dira, sarritan gertatzen da jatetxe batean. Hori oso normala izaten da. Eta horrela dagoen pertsona bat badakizu zelan tratatu, haserretu barik, taxi bat eskatu behar bazaio, eskatu...

Pasadizo gogoangarriren bat?

Egunero gertatzen da zeozer. Pasadizo bat ez, baina sekulan ahaztuko ez dudana zera da, futbol mundialetan Ingalaterrako selekzioa gurera etorri zenekoa. Ederto pasatu genuen, oso ondo pasatu genuen. Ospe txarra badute ere, oso ondo portatu ziren. Gure jatetxetik jende asko pasatu da baina ni horiekien gogoratzen naiz beti.

Bai, seguru ospetsu asko ezagutu dituzula jatetxean...

Bai, kontua da gurea oso leku ezaguna dela eta jende asko datorkigula. Adibidez, gogoratzen dut behin Bartzelonako Kontea etorri zela, pertsona maitagarria, xalao eta oso humanoa iruditu zitzaidan. Heinckes entrenatzailea askotan etortzen zen, mahai eta ardo kontuetan oso sibirita eta aditua zen. Ministro asko etorri dira. Arzallus bera batzuetan egon da. Torero, artista eta aktore asko etortzen dira. Gogoratzen dut Pierce Brosnane (James Bond) hemen ospatu zuela bere neskalagunaren urtebetetzea. Portzieto, Brosnan Riojako ardoekin maiteminduta dago. A! Afari hartako kontua emakumezkoak ordaindu zuen.

Ezin dezakegu elkarrizketa hau aholku bat eskatu barik. Zer eskatu behar dut Tamarises-era bazkaltzera banao?

Edateko Errioxako ardo bat, asko eta oso onak ditugu. Eta jateko, guk “merluza txipirona” deitzen duguna gomendatuko nizuke, hau da, legatz frijituak Abrako txipiroiekin. Plater gertxoztarra da, hemen asmatua eta arrakasta itzela daukana. m

“Ahal izango banu egunero jatetxe berri batera bazkaltzera, ezagutzera, ikastera eta gozatzera joango nintzateke”



CALENDOS RIKI

UMEAK GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543

AREETA

I

Iñaki Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

Algorta



TXIBERRI edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Umoretsu eta alai sentituko zara, eragin ezin hobea izango duzu inguratzen zaituzten pertsonengan eta aukera berriak sortuko dira zure harremanetan. Nahiz izanez gero, etekin handiak atera ditzakezu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Maitasun arloan dena duzu zure alde, lagunik baduzu, sasi ezitia eta zorionsua biziko duzue elkarrekin eta oraindik ez baduzu, zure gogoko pertsona bilatu; lasai, laster agertuko da. Hori bai, argi ibili diru kontuekin.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ez duzu zintzo jokatu zugaran konfiantza osoa duten pertsonekin eta arrankurak gainetik ezin kenduz zabilta. Inoiz ez da berandu okerrak zuzentzeko: esandakoak argitu eta egoera baretuko da.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Haize berriak eta lagungarriak zure alde. Lagun berriak egiteko aukera ikusten da. Lanari dagokionez, zure nagusien oniritzia izango duzu azkenean eta baliteke gora egiteko eskaintzaren bat jasotzea.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Udaberriarekin batera aldaketa ugari nabarituko dituzu zure bizitzan. Gauzak bukatzen direnean hobe da aurrera tinto jarraitzea, gauza txarrak ahaztu eta ikasitakoa aprobetxatu, etorkizunean ongi etorriko zaizu eta.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Baliteke laster bidaiatxoren bat egiteko aukera azaltzea; horrela bada, aprobetxatu ezazu on egingo dizu eta. Baina, batez ere, saiatu zaitetz arazoak alde batera uzten; denborarekin dena gainditzen da.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Osasuna eta dirua ez dituzu faltan, baina non ote da hain beharrezkoa dugun maitasuna? Izan pazientzia apur bat eta ez galdu itxaropena. Kontuan hartu benetan onak diren gauzak ez direla egun batetik bestera lortzen.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Ez zaitetz hainbeste larritu arazo txikiekin eta kontuan izan benetan ardura duten gaiak, bestela logabeziak akabatuko zaitu. Astialdi ederra datorkizu kezkekin hondatzen ez baduzu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Gauza gehiegi egin nahi dituzu, buru-belarri sartu zara oso gogoko dituzun asmo askotan, baina ez utzi alde batera maite dituzun lagunak eta, ez ahaztu, zaindu zure osasuna. Izan ezazu begirune gehiago zure bikotetarekin; eskertuko dizu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Azken bolada honetan utzikeria hutsan jausi zara. Apaindu zaitetz eta atera kalera; bizi eta gozatu momentua eta laster izango dituzu arrazoi nahiko pozik eta baikor sentitzeko.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Zure egitasmoren bat bertan behera gera daiteke eta kezkatuta ibiliko zara. Agian, aspirina bat baino gehiago beharko duzu egunotan. Maitasunean oster, esperientzia berriak bizitzeko aukerak izango dituzu.


NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zurea lortu arte ez zara gelditzen. Burugogorra zara eta edozein gauza egiteko prest zaude zure helburuak lortzeko, baina saiatu zaitetz inor ez mintzen, batzuetan oso zakarra izan zaitetzke eta.

[komikia]

ba al dakizue
mozko rtiarena!



biharamunean,
telefonoak
jo du...



bihotza...
bart berriro ere
mozkor eginda etorri
zinen?

ez, laztana, ez!
baina zerk bultzatzen
zaitu hori pentsatzera?

ba, etxe azpiko tabernatik
deitzen ari dira... eta
gurpildun aulkia hantxe
ahaztu omen zenuen!

SE
FINI!

MUNGIA

oKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



Bitor Egurola

Ondarreta abesbatza 1975 Hona hemen Ondarreta Abesbatza Begoñako basilikan Bonifacio Orzaren (GB) zuzendaritzapean. Berau izan zen taldearen sorrerako zuzendaria. Taldea 1967'an sortu zuten eta Nuestra Señora de las Mercedes zuen izena. Geroago, 1973'an gaur egungo izena hartu zuen. Bigarren zuzendaria Nicolás Torre (GB) izen zen (1975-1977) eta honek bere semeari, Manuel Torre Liedóri pasatu zion batuta. Gaur egun zeregin horretan jarraitzen du Manuelek. Ondarreta Euskal Herrian eta atzerrian egindako hainbat ekitaldian hartu du parte, Alemanian, Belgikan... ibiliak dira. Gaur egun sorrerako ilusio berarekin abesten jarraitzen dute baina jende faltan dabilza eta horregatik terrotxo hauek detaldia egiteko aprobexatu nahi izan dituzte. Kantatzen gozatzeko asmorik izanez gero, pozik hartuko zaituzte. Astrelehenetan, Areetako kultur erxean, arratsaldeko 8:00etan elkartu ohi dira.

Erretratuan, ezkerretik eskuinera eta goitik behera: José Luis Beitia (GB), Juan García, Fernando Valle, ?, ?, Ramón Barrietabehía (GB), Rafael García-Etxabe, Javier Mascarua, Juanjo Irastorza, José Ortiz (GB), Blas Abrisqueta / Josu Sesumaga (GB), Ramón Uriarte, Sabino Elordui -Zapatarietxe (GB), Juan Mari Agirre, José Luis Villodas (GB), Inaki Muguruza, José Ramón Sarriate, Rafael Castarros, Pedro Gorr / Inés Merino, Blanca Arriola, Isabel Basterretxea, Inmaculada Peñaredonda, M. Luis Armada, Manito Uriarte, Inmaculada Peña, Merxe Basterretxea, Irene Barrietabehía, Miren Egilior / Carmen Arteaga (GB), Mate Orrella, Maribel García, Itziar Gabarati, ?, ?, Agurtzane Monasterio, Maribi Sanblarte (GB), Mariasun Tubet